

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozio batekin hasteko diru kantitate bat izatea beharrezkoa da, hasieran dauden gastuak kudeatu ahal izateko. Horretarako, talde honetako partaide bakoitzak 1500€ jarriko ditugu ezer egiten hasi aurretik, hau da, guztira 4500€ izango ditugu gure zerbitzua aurrera eramateko.



Hasteko, gure ipuin berriak idatziko dituen idazle baten lana ezinbestekoa da. Azken finean ipuinen eduki feminista eta aurreratzaileria da umeei iritsiko zaiena, eta hauek kontu handiz eraldatuko dituen norbaiten beharra dugu. Kasu honetan, guk geuk egingo dugu lan hori, gai hauek ondo menperatzen ditugulako eta umeentzako testu sinple eta ulerterrazak egiteko



gai ikusten dugulako geure burua. Modu honetara, hauek idazteko pertsona bat kontratatzearen beharra saihestuko dugu eta honekin batera, dirua aurreztu. Kasu honetan feminismoaren inguruko ezagutza Amayak ditu eta liburuak originalitate puntu bat izateko sormena Josebak.

Bestalde, gure elkarteekin hitzegiteko eta harremana mantentzeko, harremanetarako gaitasuna duen taldekide bat ezinbestekoa da. Gaitasun horren jabe Joseba da.

Ondoren, ipuinen diseinu egokia egingo duen norbaiten beharra izango dugu, baita ilustrazioak egingo dituenarena ere. Eginkizun hau betetzeko ere, ez dugu taldetik kanpoko pertsona baten beharrik izango, trebetasun hori eta batez ere sormena Uxurik duelako.

Gero ikastoletara joateko Uxuriren furgoneta erabiliko dugu, handia eta aproposa delako liburuak eramateko. Horrela bat erostea edo alkatzea sahiestuko dugu.

Gure ikastetxeak egindako kidezak adin desberdinetako jendeekin eta taldeko hirurak jasoko dugun begirale kursilloarekin, umeen errealitatearen ezagupen bat izan dugu eta izango dugu. Bestalde, liburu denda bat duen

taldekide bat dugu: Amaya. Bere familiko liburu dendak 40 urte beteko ditu laister eta horren bidez elkar argitaletxearekin zuzeneko kontaktua lortuko dugu bere gurasoek duten harreman honen bidez. Gainera, liburu denden funtzionamendua gertutik ezagutzen du eta hori lagungarria egingo zaigu. Horrela, gure herriko bezeroen iritzia jasoko dugu.

Enpresak egiten dituen jarduera guztiak legalak izatea oso beharrezkoa da, inolako isunik edo gaizki-ulerturik ez izateko. Hau eramateko pertsona lortu dugu jadanik, hori Amayaren familiko lagun bat da. Honek zuzenbideko ikasketak bukatu zituen eta 30 urte baino gehiagoko esperientzia du, beraz prestakuntza aproposa du. Ia familiakoa denez eta lan konplexuegia ez denez, muxu truk egingo du.

Hori guztia dela eta, beharrezko baliabide gehienak taldean aurkitzen dira eta dohainekoak izango dira, eta ditugun gastuak aurrerago irabaziak bihurtuko dira.

